



Martxoan jokatuko dira Arabako Bertso Kuadrilla Artekoaren eta Nafarroako Bardoen finalak

Arabako bertsoaren 17an egingo da azken saioa, Gasteizen; Nafarroan bertsoaren 24an agurtuko dituzte Bardoak, Lekunberrin.

Ohiko txapelketa eredutik aldentzen dira Arabako Bertso Kuadrilla Artekoa eta Nafarroako Bardoak. Taldeka jokatu dira biak, eta taldea arduratu behar izaten da bertsoan egiteaz, gaiak jartzeaz, epaitzeaz, antolatzeaz eta behar diren lan guztiak egiteaz. Saioetan sortzen den giroa ere berezia izaten da.

Urtarrilean abiatu zen Arabako Kuadrilla Artekoa. Oier Suarez Arabako sustapen arduradunak adierazi du oso pozik daudela txapelketarekin. "Jende pilo ari da parte hartzen, eta saioak oso ondo ari dira ateratzen", esan du. "Txokoetan egiten dira saioak eta

benetan itxura ederra hartzen dute, giro oso ona egoten da", dio. Kuadrilla Artekoaren finala Gasteizen izango da, Landatxon. "Egun osoko jai izango da", dio Suarezek. "Lehenengoz hiru taldekoa izango da finala eta hori erronka izango da guztiontzat", azaldu du. Hori bai, jai giroa izango dela nagusi azpimarratu du.

Bardoak, aldiz, otsailaren 2an abiatu ziren, 16 talderen eta 113 laguneren parte-hartzearekin. Orain arte egindako bidean "gogo onez" erantzun du publikoak, Ander Perez Nafarroako Bertsozale Elkartearen sustapen eragilearen arabera. "Saioetan jende

asko bildu da, eta parte-hartzaileen zein entzuleen gogoaren ondorioz, giro ederra sortu da herriz herri". Bardoen izaerari esker talde lana nagusitu da, eta batera hartu dute parte bertsolari hasiberri eta esperientzia handikoek, "auzolana oinarrian jarritz".

Martxoaren 24an jokatuko da Bardoetako finala, Lekunberriko Toki Alai sagardotegian, eta han izango dira bigarren faseko kanporaketetan aurrera egin duten hiru taldeak. Finalaren eguna, lehiatzen harago, "Nafarroako bertsolariaren festa" izatea nahiko luke Perezek.

KUADRILLA ARTEKOA. Martxoak 17, Gasteiz

12:00. Bertso-poteoa Landatxo kantxatik hasita. Idatzizko bertso sorta taldeak eta bertsolari taldeak tabernaz taberna.

14:30. Bazkaria Landatxo kantxan. Bazkarian izena emateko 675 70 79 71ra deitu martxoaren 14a baino lehen. Bazkideek eta 6-16 urte bitartekoek 12 euro; gainontzekoek 15 euro.

17:00. Finala Landatxo kiroldegian. Sarrerak egunean bertan izango dira eskuragai. Bazkideek eta 6-16 urte bitartekoek 3 euro; gainontzekoek 5 euro.

BARDOAK. Martxoak 24, Lekunberri

17:30. Finala Lekunberriko Toki Alai sagardotegian. Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian eta Lekunberriko Lanbroa liburu dendan. Bazkideek 10 euro; 16 urtetik beherakoek 5 euro; eta gainontzekoek 12 euro.

20:30. Triki-poteoa Lekunberriko kaleetan barrena.

22:00. Afarria Lekunberriko Toki Alai sagardotegian. Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian, 23 eurotan.

AROA ARRIZUBIETA BARREDO

Getxo, 2018-II-09

Abra Sariketako irabazlea

Doinua: Sorlekua utziz geroz

Arabara joatea al da azkenaldiko moda? Begirada konplizeak baino ezer ez da hoba. Eta nahiz hemen ez dudan galdu gaur alferrikan denbora arantzatxo bat dut ez joatearren ta muxu bat Amurriora!



"Probatu ez duenak ez daki zer den hau!"

Neguan egon arren, martxan daude dagoeneko Bertso Udalekuak. Bost txanda antolatu dira aurten ere Euskal Herriko hainbat txokotan. Udalekuak barru-barrutik bizi izan dituzte Asier Alcedok (Portugalete, 1996) eta Edurne Azkaratek (Oion, 1993), txikitan udalekuetara joaten zirelako, eta gaur egun, bertako hezitzaileak direlako. Udalekuei buruz galdetu diegu.

Bertso Udalekuetara joaten zineten lehen, eta gero begirale ere izan zarete. Jasotakoa ematera joaten zaretela esan daiteke?

Asier Alcedo: Duda barik! Udaleku askotan egon izan naiz urteetan zehar eta guztietan jaso izan dut hezitzaile bakoitzetik irakaspén edo balore bereizgarriren bat. Beraz berekoa litzateke haiengandik edandako guzti hori eta hain baliagarria izan zaidan bizitzak ikuspuntu hori niretzako bakarrik gordetzea.

Beraz, orain guri dagokigu haur eta gaztetxoei jaso genuena ematea haiek noizbait berdin egin dezaten eta haiek ere haien ingurua ahal den heinean eraldatu dezaten.

Edurne Azkarate: Hori da! Egia esan gazteen txandan azken urteetan hitz egin dugun zerbait da. Bizitzak jaso eta eman, eman eta jaso den erara, udalekuak horrela ulertzen ditugu eta hain proiektu aberasgarrian egonda, udalekuen hurrengo urrats bezala sentitu izan dugu begirale bilakatzea, talde baten parte sentitzen gara eta jarraipena bermatu nahi dugu.

Zerk egiten ditu udalekuok berezi?

A. A. Probatu ez duenak ez daki zer den hau! Zaila da hitz gutxitan hori azaltzea baina berezitasuna partaideek ematen diote. Alde batetik, hezitzaileok oso argi daukagu zein balio eta intentzio transmititu behar ditugun, besteak beste bertsozaletasuna, euskararekiko maitasuna, balio feministak, ikuspuntu kritikoa, zaintza pertsonala eta kolektiboa, sormena... eta helburu argiak dituen lantaldeak bete egiten ditu bere xedeak. Bestetik izena ematen duten haur eta gaztetxoak ere oso ingurugiro jakinekoak izaten dira eta ikaragarri aberasten dute udalekua haien musika, kantu, bertso, antzerki eta sormen gaitasunarekin.

Zer eman dizuete udalekuek?

E. A. Bertso Udalekuak nire askatasuna azalerazi, disfrutatu eta lantzeko erabilgarri izan zitzaizkidan nire nerabezeroan. Naizenaren zati handi bat Bertso Udalekuei zor diet. Esan bezala sorkuntza, hezikidetzak eta feminismoa dira, besteak beste, gure gidalerroak eta pertsonalki garatu nahi garen heinean, udaleku hauek eskaintzen duten ekosistema guztiz beharrezkoa sentitzen dut talde bezala aurrera jarraitu dezagun.

A. A. Niri ere esango nuke udalekuek nortasun bat sortzeko tresnak eskaini edo eman dizkidatela, egun oso bat euskaraz bizitzen jardutearen lehenengo esperientziak, arnagune kulturala, Euskal Herriko txoko ezberdinetako pertsonekin harremana egiteko aukera... Hala ere txanda

bakoitzak zerbait ezberdina eman didalakoan nago eta txanda bukatu eta hurrengo asteetako digestioan ateratako ondorioek erakusten dute eman didatena handia eta baliagarria izan dela oso.

Bertso mundurako atea direla esan daiteke?

A. A. Bai. Nire kasuan, adibidez, Bertso Udalekuetara joan aurretik ezin nuen imajinatu bertsoak eta euskal kantak guttuko zituen nire adineko haurrik egon zitekeenik, edo bertso afarira zetozen Amets eta Onintza bertsolarien etorrera horrelako emozioarekin eta urduritasunarekin inorekin partekatu nezakeenik. Momentu horretan babestuta sentitzen zara, badakizu ez zarela bakarra. Beste alde batetik, udalekuetan egiten diren jarduerak haurrengan bertsoaren lehen txinparta eta jakin-mina sortzea lortzen dute, eta horrek guztiak eragina dauka bertso munduan, dudarik gabe, askorentzat lehen harreman ez formala delako bertsoarekin.

E. A. Bai noski, eta hori baino askoz gehiago ere bai! Bertso Udalekuek Euskal Herri mailan sare izugarria sortzen dute eta oso garrantzitsua da etorkizunari begira datozen sortzaileek elkar ezagutzea. Gure kulturaren zutabeak finkatzeko baliagarriak dira Bertso Udalekuak.

Izen-ematea, laster zabalik

Martxoko BertsoZalearekin batera jaso duzue 2018ko Bertso Udalekuen inguruko informazioa. Bertso-eskolako kideek edota gurasoren bat Bertsozale Elkarteko bazkide duten gaztetxoek martxoaren 12tik 23ra eman ahal izango dute izena; gainerakoek, martxoaren 26tik apirilaren 13ra.



Bost txanda ongongo dira aurten ere Bertso Udalekuetan. //XZD

Helduen bertso-eskolentzako ikastaro eskaintza dakar Bertsozale Elkartek

Bertso-doinuak eta kantaera, raparen oinarriak, umorea eta generoa, gai-jartzaitza eta epailetza ikastaroak daude aukeran. Bertso-eskolek ere proposamen berriak egin ditzakete.

Helduen bertso-eskolentzako baliagarri eta interesgarri den ikastaro sorta berria aurkeztu du Bertsozale Elkartek 2018rako. Gune horietan bertsolaritza ertz ezberdinetatik lantzeko ikastaroen antolaketa sustatu nahi da eta horretarako erraztasunak ematen ditu elkarteak urtero.

Ikastaro sorta bat eskaintzen da aukeran, baina horietaz harago proposamen berriak ere egin ditzake bertso-eskola interesdunak. Bertso-eskola bera izango da antolatzailea eta, beraz, tokian tokira egokituz eta ikastaro emailearekin adostuz itxuratuko da ikastaro, hitzaldi edo tailerra. Horren arabera ikusiko da, besteak beste, talde barrurako ikastaro gisa eskaini, herri mailara zabaldu, beste zenbait bertso-eskolako kideekin batera parte hartu...



Eskaintza zabalago dago ikastaroen artean. //XDZ

Jada zehaztuta dauden hitzaldien artean denetariko gaiak topa daitezke. Raparen inguruko hitzaldia prest du **Odei Barrosok**: rap abesti bat egiteko beharrezko diren oinarriak landuko dira ikastaro honetan eta horiek dantzan ere jarriko dira, rap koplak bat sortzeko. Bertso doinuak eta kantaeraren gainekoak landuko dira **Eñaut Agirrerekin**: kantaerak zuzeneko komunikazioan duen garrantzian jarriko du arreta. Umoreari helduko dio **Ane Labakak**, generoaren ikuspegia helduleku dela. Umoreak bistara ditzakeen botere harremanetaz jabetuarazi eta egun umorea bertsolaritzan nola agertzen den azalduko du. **Maite Berriozabalek** gai-jartzaitza

egin beharrekoak azalduko ditu: plazako bertso-saioen diseinu eta gauzatzeari buruz ariko da, gai-jartzaitza ikuspegiatik. Eta **Iñaki Aurrekoetxeak** epailetza lana ezagutaraziko digu, epai-irizpideak azalduz eta horiek eztabaidatu eta praktikan jarri.

Ikastaroen iraupena ordu eta erdi eta bi ordu bitartekoa izango da. Finantzaketa erdia Bertsozale Elkartek lagunduko du.

Informazio gehiagorako eta eskaerarako **transmisioa@bertsozale.eus** helbidera idatzi behar da.

Eneko Fernandez: "Hagitz baliagarriak dira halako ikastaroak"

Bertso-eskola asko dira jadanik ikastaroak antolatzen dituztenak. Horietako bat da Lesakako bertso-eskola; Eneko Fernandez (Lesaka, 1977) bertako kidearekin hitz egin dugu.

Zein ikastaro jaso du zuen bertso-eskolak?

Lesakan azaroa-abendua aldean bertso ekintza ezberdinak gauzatzen ditugu eta horren baitan antolatzen ditugu halako ikastaroak: *Bertsoa eta umorea* egin genuen Unai Iturriagarekin, Karlos Aizpuruarekin ere egin genuen beste bat, Maialen Lujanbiorekin, Amaia Agirrerekin... eta azkena, *Bertso doinuak eta kantaera*, Eñaut Agirrerekin.

Zein motatako jendea hurbiltzen da horrelako ikastaroetara?

Bertso-eskolan dabilen jendea eta bertso munduan hagitz

hurbileko jendea etorri izan da; baina zenbaitetan bertso eskolari ez loturiko jendea ere bai, Maialenen eta Unairen ikastaroetan esate baterako.

Baliagarriak iruditzen zaizkizue horrelakoak?

Hagitz ongi baloratu izan ditugu, bai. Batzuk bertsolari denarentzat bakarrik balio dute, bertze batzuk jende guztiarentzat baliagarriak dira... hagitz interesgarriak dira halako ikastaroak.

Hemendik aurrera ere jasotzeko prest zaudete?

Guk urtero bat egiteko intentzioa dugu; ea horrela jarraitzen dugun.



Puntu jarrita

JULEN ZELAIETA IRIARTE

Bardoetan, zuen gisan, momentuz ongi! Hau idazterakoan lehia segitzen dugu; hau argitaratzean, auskalo!

Bertan taldeen eta taldekideen artean sortzen den giroa berezia da. Bardoak hitz batean azaldu beharko banu, hitz hori "elkarlana" litzateke. Batez ere etxeko saioa antolatzeak ez baitu lan gutti eskatzen! Horra:

Saioaren aintzinetik: saioa egiteko leku egokia topatu; taldeekin data adostu; lekuko arduradunarekin solas egin - saioa nola egin, ondoko otordua, sarrerak... -; kartelak eta eskuorriak jaso; herria kartelez "apaindu"; sare sozialen bidez, hitzordua zabaldu; bertze taldeko kideak eta epaitzera etorri behar dutenak abisatu; epaileentzako karpetak eta boligrafoak erosi; argazki kamera eta bideo kamerako bateriak kargatu,...

Egunean: megafonia montatu; audioa grabatzeko gailuak prest utzi; bideo kamera leku egokian jarri; bertze taldekideei eta epaitzera datozen bi kideei harrera egin; epaitzera ausartuko diren bost entzule topatu eta prozesua azaldu; bertsolari eta gai-jartzaileei saiorako tragoak zerbitzatu,...; ah! eta saioa aurkeztu edo kantatu!

Ondotik: talde argazkia atera; argazkia eta emaitza, whatsapppe, Bertsozale Elkarteko arduradunari bidali, lehenbailehen sarean zabal dezan; epai-paperak jaso; grabaketak segituan ordenagailu portatilerara pasatu, gero denak txukun Iruñera bidaltzeko. otordua zerbitzatu - tartean ere sozializatu beharko! -; epaitzen aritu diren entzuleei pertsonalki eskerrak eman; gainerakoekin saioa komentatu...

Elkarteak bakarkako txapelketan egiten duen lana balioesteko ikasgai ederra, dudarik gabe!

Kontuak kontu...martxoaren 24an da azken saioa Lekunberrin. Ondotik, ohiko afarian izanen da bai zer ospatu! Nik behintzat bai, batez ere gauerdia ondotik; martxoaren 25ean bertso-eskolan hasi nintzenetik 25 urte beteko baitira.

Hain zuzen ere, bertan ezagutu nuen zure anaia, Iban. Anaia bertso-eskola utzi zuen eta ondotik zuk hartu zenuen Garrotarren lekukotza. Hala ere, bertsoan hasi zineneko, jesukristoren adina urruti ez! nik duda bat dut: bertsozale bertsozale izan arren, nolatan kosta zitzaizun hainbertze pausoa ematea?

Koplak

Arrakala jardunaldietan hartuko du parte Mintzolak

Dantzerti Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Eskolak Arrakala izeneko jardunaldiak antolatu ditu bigarren aldiz martxoaren 16tik 18ra bitarte bere egoitzan, Bilbon. Inprobisazioa izango dute ardatz. Hala, lehen egunean, Andoni Egañak eta Uxue Alberdik hartuko dute parte, *Bat batean-bat bitan* izeneko hitzaldi-emanaldian. 20:30ean izango da.

Poto-Finixa



BertsoZalea posta elektronikoz jaso nahi?

Ekologiari begirunea erakutsi paper gutxiago erabiliz, gastu ekonomikoak murrizten lagundu, eta paperean baino lehen jasoko duzu. Idatzi komunikazioa@bertsozale.eus helbidera, eta hurrengo hilabetetik aurrera digitalean jasoko duzu Bertsozale Elkartean berripapera.

**BERRIAK
JAIO
GINEN**

JON MAIA SORIA

LIBURU BERRIA!

Liburua erosteko eta informazio gehiago jasotzeko:

Lanku
www.lanku.eus
943 26 07 55

PUBLIZITATEA